

Aretxagazeta

Aretxabaleta
995eko urtarrilak 26

Haurrentzako
ludoteka

Txillardegi
eta
Euskaltzaindia

Juan Mari
Otxoa



**Guraso eta irakasleak
elkarlanean**

Ipin ezazu martxan
 5.000.000 pta.
 %10 garbian (UTB %9,14)
 eta 3 urteren buruan...



Ondare Aseguratua:

- Interes garantizatua.
- %25eko atxekipen fiskalik gabe.
- Inbertsioak irauten duen bitartean ez duzu zergarik ordainduko errenta-aitorpenean.

Ondare Aseguratua Lagun Aro Vida S.A.ren Bizi Asegurua da.

Zatoz Euskadiko Kutzaren sukurtsaletara edo hotsegizu 901-333 444 telefonora.

Garantizatutako kapitalak.

1.000.000 pta.	3 urtera	1.275.000 pta.	Nominala %9,16 (UTB %8,43)
3.000.000 pta.	3 urtera	3.850.000 pta.	Nominala %9,44 (UTB %8,67)
5.000.000 pta.	3 urtera	6.500.000 pta.	Nominala %10,00 (UTB %9,14)

95-1-14tik aurrera dagoen eskaintza.

Beherapenetan zerbait erosi al duzu?

Begoña Idigoras
(*Etxeakoandrea*)



*Ez, ez dut ezer erosi.
Nire ustez preziotan ez da alde haundirik egoten beherapenetan. Nor-malean sasoiari sasoikoa erosten dut.*

Karmele Agirregabiria
(*Euskara irakaslea*)




*Ez, oraindik ez.
Ez dut dendarik ikusteko astirik izan, baina "forro polar" bat erosteko asmoa daukat beherapenetan.*

Arantzazu Rubio
(*Etxeakoandrea*)



*Ez dut ezer erosi.
Normalean zerbait erosten dut, baina aurten ez zait ezer gustatu. Dagoeneko ez dut uste ezer erosiko dudarik.*


Iñaki Berasaluze
(*Langile*)



*Ez, ezertxo ere ez.
N o r m a l e a n begirutzen dut, baina aurten ez daukat beherapenetan ezer erosteko asmorik.*



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultur sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria



Aretxabaletako
Udalak diruz
lagundutako
aldizkaria

ESKUTITZAK

Zorionak

A RETXAGAZETAK eskaintzen baina uste dut horrelako gauzak eskertu egin behar direla:
didan aukera aprobetxatuz, Aretxabaletako Abesbatza benetan zoriondu nahi nuke, Elizan eskaini diguten azken ekitaldiengatik: ZORAGARRIA.

Z ORIONAK DENORI! ETA BEREZIKI MARIATXEN URKIA, SOPRANOARI, ETA ANGEL BARAN-DIARAN ZUZENDARIARI.

I ruditzen zait beste zenbait pertsona nire iritsi berekoak direla, baina arrazoi ezberdinak direla medio, ez dute beraien iritzia azaldu;

Animo eta segi aurrera, nahiz eta eta batzutan izugarri kostatu.

Agur bero bat.

M. L. Azkarate

GUREA
TABERNA
JATETXEA

Durana Kalea
Tfnoa: 79 20 64

ANGELINES
Autozerbitzua



Mitarte, 16 ☎ 79 61 42

IZOTZ
TABERNA

Mitarte, 16
☎ 79 73 65

MUSIKA TALDE BERRIA



Taldeko partaideak: "Poli", "Sasi", "Pana", "Piturdi" eta "Pali"

Jo eta ke ari dira entsaiatzen euren estreinaldirako

Atxabaltako 5 lagun ari dira talde berria sortzeko ahaleginetan. Taldearentzat aukeratu duten izena "ARIX" da eta taldeko partaideak honako hauek dira: Iban Bengoa "Poli" (bajoa), Iñigo Jauregi "Pana" (abeslaria), Mikel Sasiain "Sasi" (kitarra), Ibai Bengoa "Pali" (bateria) eta Igor Etxeandia "Piturdi" (kitarra).

Gaur egun, Atxabaltako Udalak utzi dien lokal txiki batean entsaiatzen dute eta ekipoa ere ez da aproposena. Hau dela eta, errifa batzuk atera dituzte ekipoa erosteko, lerro hauetatik atxabaltarroi laguntza eskatuz.

Aukera bat eman behar zaie gazte hauei eta gero denborak esango du zer merezi duten.

ALFABETATZE IKASTAROA



Tril emakume taldeak antolaturiko Alfabetatze-ikastaroa martxan da dagoeneko. Urtarrilaren 10ean hasi zen eta momentuz 17 partaide ditu. Batzuei ikastaroa zail samarra iruditu zaien arren oso giro egokia ei dago. Klaseak astearte eta ostegunetan izaten dira, 2,30etatik 4,30etara bitartean.

Berberari logotipoak badu irabazlea



Berberari, euskera-hitzarmenaren logotipo-lehiaketaren irabazlea Aritz Arrizabalaga mutrikuarra izan da.

BASTER-ALDE JATETXEA



SASOIKO JAKIAK
GIRO ONENEAN

Galartza auzoa Tfnoa: 79 24 58 ARETXABAETA

MAITE ILEAPAINDEGIA

Sarasate, 1 ☎ 79 59 05
ARETXABAETA

GEMES

EPILATERM
Min gabeko depilazioa
Durana, 40-2 ☎ 79 99 18
Aretxabaeta

HAURRENTZAKO LUDOTEKA ATXABALTAN

Haurrak dibertitu eta euskera lantzea ditu helburu

Loramendi Kultur Elkarteak hiru hilabetetarako probarako ludoteka martxan jarri du. Helburu nagusiak hurrek jolasteko toki bat izatea eta euskera bultzatzea dira.

Ludoteka hurrek jolasteko tokia da. Loramendi Kultur Elkarteak ludoteka baten beharra ikusi du Atxabaltan, eta horregatik hiru hilabetetarako ludoteka martxan jarri du. Hasiera batetan hiru hilabetetarako bada ere, jasotzen duen erantzunaren arabera agian jarraipenik ere izango du.

Ludoteka abenduko lehen astean zabaldu zen, eta **Jasone Garcia-Etxabe** atxabaltarra ari da bertan lanean. Momentu honetan, lehen "Brikolan" denda zegoen tokian kokatua dago. Ordutegia honako hau da:

- Egunero, 5etatik 8etara.
- Larunbatetan, 11etatik 1etara.

Momentuz arrakasta haundia izan du haurren artean. Guztira 172 bazkide ditu, bost urtetatik hamabira bitartekoak direnak. Hala ere, lokala txiki gelditu da haur guzti hauentzako eta ondorioz adin ezberdinen araberako taldeak sortu dira:

- 1.- 5-7 urte (asteazken eta larunbatetan)
- 2.- 8-10 urte (astearte eta ostiraletan)
- 3.- 10-12 urte (astelehen eta ostegunetan)



Trebezia lantzeko tokirik egokiena da ludoteka

Era guztietako jokuak daude ludotekan, baina aipagarrienak didaktikoak, eraikuntzakoak, sinbolikoak, talde-lana lantzekoak eta sormena lantzekoak dira.

Ludotekara jolastera joaten diren hurrek baldintza bat bete beharko dute, euskeraz hitzeging hain zuzen ere. Horregatik, toki egokia izan daiteke hurrek ikastolatik kanpoko harremanetan ere euskera erabiltzeko.

Bukatzeko, bazkide izan nahi duenak bostehun pezeta ordaindu beharko ditu, eta horrela ludoteka dagokion egunetan erabiltzeko aukera izango du

JANTZI DENDA

A S E N S I O

Mitarte Kalea, 12

Tel. 79 10 72

ARETXABALETA

SHOT! grabaketak S.L.
Araba Etorbidea, 3-2. solairua
Eskatu Pabiloia
☎ 943-79 37 51

SHOT!
grabaciones

ARRASATE

Gipuzkoa



CONSTRULAN
ARQUERO ANAIK

Indusketa eta
etxagintza lanak

Basabe Poligonoa, 4 EO-11
Tfno eta faxa: 79 01 51
ARETXABALETA

GARBITU
S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

Haurren tanborradak Atxabaltan



Argazkian ikusten ditugun haurtxoak Pausoka haurtzaindegikoak dira. Guztira 35 haur aritu ziren tanborrari soinua-edo ateratzen, eta baita lortu ere. Raimundo Sarriegi zenaren konpasak majo jarraitu zituzten. Dotore-dotore zeuden Argiñanoren moduko txapela buruan jantzita eta tanborra gerritik zintzilik zutela. Zoritxarrez eguraldi txarra egin zuen San Sebastian egunean eta tanborrada barruan egin behar izan zuten. *Tamborrero dale fuego ...*

Kurtzebarri eskolan 10,30ak inguru ekin zioten tanborradari. Makina bat haur bildu zen bertan, hiru urtetatik bostera bitartekoak. Eguraldiarekin ez zuten zorte onik izan eta tanborrada Kurtzebarri eskola barruan egin behar izan zuten, plazan egin beharrean. Bederatzi egunetan ordu erdiz entsaiatzen aritu ondoren, tanbor-hots dotorea atera zuten, ia-ia Donostia eta Azpeitiakoek beraiek baino hobeto. Haur hauek tanborra nola jotzen zuten ikustera makina bat jende ere hurbildu zen.



Santa Rita ikastetxekoek arratsaldean egin zuten tanborrada. Duela hiru urte hasi ziren tanborrada egiten eta urtetik urtera hobetuz joan dira. Guztira 56 haur aritu ziren sukaldari-txapela, musuzapia eta tanborra aldean zutela. Astebete entsaiatzen ibili ondoren, ikuskizun txukuna eskaini zuten. Hauek, aurreko biek baino eguraldi hobea izan zuten, arratsalderako atertu egin baitzuen eta horregatik tanborrada kanpoan egin ahal izan zuten. Aipatzekoa da bertara hurbildu zen jendetza guztia. Argazki makinak eta bideo-kamarak nonnahi ikus zitezkeen.



FELIX PAGALDAY

Deba Garaiko

Biona

Pentsuen Banatzailea

Laborantza tresnak

Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea ☎ 77 00 33

J. ALTUNA

Zurgindegia

Sukalderako
haltzariak

Basabe Poligonoa, A-2-3
☎ 79 72 55 Aretxabaleta

LUDI-BERRI

Musika taldea

- Ezteiak
- Bataioak
- Banketeak
- Jaialdiak

Tfnoak: 79 11 63/ 79 00 95

MATIKUA

Taberna

Aozaratza auzoa
☎ 79 16 68

ARETXABALETA

Kintoak hasi dira dagoeneko banakoa entsaiatzen

Aurten, 78. urtean jaiotako kintoei tokatzen zaie Santa Ageda mutil izatea. Otsailaren

4ean baserriz baserri kantuan arituko dira eta otsailaren 5ean herrian kantatuko dute. Arratsaldean plazan banakoa dantzatuko dute. Aurten otsaileko lau igandetean zehar tokatuko zaie dantza egitea eta azken igandea ihauterietakoa da.



Ihazko kintoak

Kamioi istripua Atxabaltan



Ez da normala kamioi bat modu honetan ikustea, baina aurreko eguakotxean, urtarrilak 13, A.D.C. kamioilariak istripua izan zuen Santutxu aldean. Kamioia, Maxi Durango enpresakoa, Arrasatetik Atxabaltara zetorren eta gurgila arekan sartu ondoren kontrola galdu zuen. Ondorioz, zeraman karga mugitu egin zen eta zuzenean barandaren kontra jo zuen, kamioia Arrasaterantz begira gelditu zelarik. Nahiz eta istripua ikusgarria izan, kamioilariari ez zitzaion ezer gertatu. Gero grua baten bitartez jaso zuten kamioia, bidea ordu bete inguru itxita egon zelarik.

AK ARRASATE KRISTALDEGIA

ANBULATEGI PAREAN

Kristaldegia orokorrean Erakusketa bikaina

- BEIRATEAK ETA GRABATU ARTISTIKOAK
- HALL, EGONGELA ETA BAINURAKO ISPILU BISELATUEN MURALAK
- LORANTZIAK, EURITAKONTZIAK ETA ISPILUZ HORNITUTAKO KONTSOLAK
- BEIRAK ETXEBIZITZAN IPINTZEN DITUGU

Biltegia eta erakusketa:

Nafarroa Etorbidea, 25 behea

Tfno. eta faxa: 77 07 74 • ARRASATE

Euskara, pantaila aurrera

Euskara ordenadore bidez ikasteko metodoa da Benetan SV. Diktadar enpresak orain zazpi urte inguru euskara informatikaren bidez ikasteko sistema osatzeko ahaleginari ekin zion. Gaurregun sistema honi esker euskera ordenadorez ikas daiteke. Horregatik zerotik hasi eta bakarka ikasten hasi nahi duen ikasleari zuzendutako proiektua da batez ere Benetan SV.

(Argia)
1995-1-8

Eroski - Euskara konpromezua

Eroskik 25 urteko ibilbidean sendotu egin du euskararekin duen konpromezua. Bere 25. urtemugaren kariatz eratu-tako ekintzek ere hori erakusten dute, euskara denetan egon baita present eta egoki. Abenduaren erdialdean Banaketa eta Kontsumorako Hiztegia aurkeztu zuen, janari eta edarien lehen hiztegi terminologikoa.

(Berripapera)
1995eko urtarrila

Bertsolari Eguna Donostian

Joan zen zapatuan Bertsolari Eguna ospatu zuten Donostian Euskal Herri osoko bertsolari eta bertsozaleek. Nahiko egun berezia izan zen hainbat

Euskaltzain bat hiltzen denean, bere lekua betetzeko beste bat aukeratzen da Euskaltzaindiko urgazle direnen artean. Antonio Maria Labaien hutsunea betetzeko 3 pertsonaren artean aukeratu du oraingoan Euskaltzaindiak. Hiruretako batek, Jose Luis Alvarez Enparantza "Txillardegi" k zera esan du: ez duela euskaltzain izan gura, urte askotan bere izena baztertu egin dutela eta.

"Txillardegi eta Euskaltzaindia"



Jon Sarasua

Horri buruzko eritzia eskatu didate eta hiru gogoetatxo etorri zaizkit:


- Egoera normal batean, logikaz, Txillardegik aspaldi izan behar zuen euskaltzain, bere ekarpen eta gaitasunengatik. Gainera, denon moduan gauza eztabaidagarriak baditu ere, Euskaltzaindiak behar du dinamismo apur bat gehiago.

- Penagarria da ikustea, ezinikusi pertsonalak eta diferentzia politikoak Euskaltzaindian pertsona bati atea itxi diotela hainbat urtetan.

- Erdipurdikeria eta miserablekeria dezente dago gure ilustreen artean. Horrelakoak gara, zer egingo zaio. Daukagunarekin aurrera egin behar, mekauden batzu bota eta barre apur bat eginaz.

arrazoierengatik. Batetik, orain arte omenaldia egiten zelako eta aurrean ez delako inor omendu. Bestetik, bertsoak emuteko hainbat modu desberdin agertu zirelako: bapatean, gitarraz, taldeko musikaz... Gainera, aurrean ez zen izan sari

banaketarik, eta telebistarik ere ez zen egon, Bertsolaritza Elkarte eta ETB ez dabilta oso lagun eta. Oso giro alai ospatu zen eguna. Azkenean, sagardotegi batean elkartu ziren, 400 pertsona. Ez da marka eskasa.



LOGOPEDIA
ZENTRUA

ARRASATE

HIZKUNTZ-ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR-IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3-1 Esk
Tfnoa: 79 79 46 ARRASATE

EXPRESS AKEITEGIA

Santa Kurtz, 16
Tfnoa: 79 23 43

GATZAGAn

ERDI ERDIAN

ZUHAITZ jatetxea



ZENTRO
PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak

Erreabilitazio funtzionala
Logopedia

Laguntza terapia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
79 47 77 ARRASATE

Juan Mari Otxoa: "Burtsa Estatu bateko termometroa da"


Duela urte batzuk Europako, eta orohar Munduko, Ekonomiak behe-ranzko joera hartu zuenetik makinatxo bat aldiz entzun dugu Burtsari buruzko konturen bat. Juan Mari Otxoak ondo eza-gutzen ditu bertako txutxumutxu eta sekretuak.

Juan Marik dioenez, "Burtsa, jendeak akzioak salerosten dituen merkatua da. Bertan akzioen prezioak markatzen dira. Akzioa enpresa bateko kapitalaren zati bat da". Akzioak salerosteko bi modu daude: "alde batetik burtsako sozioei zuzenean telefonoz deituz egin daiteke, hau da, balore elkarteei edo balore agentziei deituz, eta bestetik banku bati a gindua emanda ere bai".

Juan Marik dionez, "burtsan inbertitzeko profesionalen bitartez aritu behar da". Momentu honetan egoera ez da oso ona, "1989. urtetik ona burtsan ez da ezer irabazi eta". Egoera nolakoa den ikusita egokiena "errenta finkoan" inbertitzea izango litzateke. Inflazioa % 4,5ekoa dela kontutan hartuz eta urteko interesa % 10ekoa dela, azkenean %5,5ean gelditzen da interes hori".

Burtsan lan egitea oso gogorra da, "eta bereziki azken bost urte hauetan. Golfoko gerrak, Estatu mailan

Juan Mari Otxoa atxabaltarrak 13 urte daramatza Bilboko burtsan lanean. Burtsako finantza azterlaria da.



gertatu diren iskanbila politikoek, e.a. izan dute euren eragina". Azken finean burtsa ez dago pertsona batzuen esku bakarrik beste faktore askoren menpe baizik, esaterako Estatu baten egoera politikoak eragin handia du. "Horregatik balorazioak egiteko orduan ezjakintasun handia sortzen da".

Aurrean esandako hau kontutan hartuz "Burtsa Estatu bateko termometroa dela esan daiteke". Bertan isladatzen da herrialde batetako egoera ekonomikoa eta politikoa, adibidez gobernuaren egonkortasuna, politika nola eramaten den, e.a. "Momentu honetan termometro horrek sukarra duela esan daiteke". Konfiantza asko galdu da eta horregatik burtsak behera egin du.

Hasi berri dugun urte honi begira perspektiba garbirik ez dago. Arazo politikoen ondorioz, interesak igo eta pezeta jeitsi egin da. Europako Estatuekin konparatuz gero, Alemania eta Frantziarekin esaterako, "gu baino askoz ere egoera hobean daude. Frantzian adibidez % 1,6koa da inflazioa eta Alemanian % 2.6koa. Inflazio aldetik oso gaizki gaude, politikoek ala ez badiote ere". Honez gain Estatuko zorra ere oso handia da Espainian.

JOSU

HARATEGIA

URDAITEGIA

GOZOTEGIA

KROASANTEGIA

"JANARI PRESTATUAK"

Mitarte, 1 ☎ 77 03 08

**ARETXABALETA
ITURGINTZA**

Durana, 16

Tfnoa: 79 17 53

ARETXABALETA

Amaia-Berri, S.L

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea

Tfno-Faxa: 77 06 49

ARETXABALETA

**Artano
Taberna**

Herriko Enparantza
ARETXABALETA

FOTO

URKIOLA

Tfnoa: 79 39 20

ARETXABALETA



KELER



El León

FELIX ARRESE

Edari Banatzailea


Industrialdean

Tfnoa: 79 60 65

Almen ikastolaren ardura: gazteen portaera

Almeneko 250 guraso eta irakasle elkarlanean ari dira. Horrelako jendetza kopurua biltzeko arrazoia seme-alaba eta ikasleengan, gazteengan orokorrean, somatutako zenbait hutsune eta hainbat jarrerak sortu duten kezkaren ondorioa izan da. Gazteen pentsamoldea eta bizi duten egoera ezagutu nahi da. Guraso eta ikasleek, beraien indarrak elkarbatuz, gero gazte izango den haur horren alde asko egin dezakete, eta guzti honek heziketa prebentiboaren beharra aztertzea eraman ditu.

Horrela bada, **Javier Elzo** soziologo ekipoak ikerketa-lan bat burutu berri du ALMENeko 12 urtetatik 18 urte bitarteko ia 1000 ikaslerekin, besteak beste familiarekiko harremanak, zaletasunak, jai egunak iragateko ohiturak e.a. aditzera ematen direlarik. Hona hemen inkesta horren hainbat datu.



Almeneko gazteen aisialdiaren erabilera

EKINTZAK	GIZONEZKOAK		EMAKUMEZKOAK		GUZTIRA	
	ASTE EGUNETAN	ASTE BURUETAN	ASTE EGUNETAN	ASTE BURUETAN	ASTE EGUNETAN	ASTE BURUETAN
T.B./ BIDEOA IKUSI	%86	%87	%91	%91	%89	%90
MUSIKA ENTZUN	%74	%75	%81	%83	%78	%79
ETXEKO LANAK EGIN/KLASE PARTIKULARRETARA JOAN	%87	%74	%94	%84	%91	%79
TABERNETARA/PASIAZTERA JOAN	%64	%80	%68	%90	%66	%85
KIROLA EGIN	%80	%80	%71	%58	%75	%68
ZALETASUNAK	%74	%49	%54	%54	%51	%52
BIDEO JOLASAK	%31	%46	%12	%12	%21	%31
IRAKURRI	%55	%43	%69	%60	%63	%52

Aisialdiak, familiarekin batera, eragin handia du gaztearengan. Goiko laukian azaltzen den moduan, astegunetan Almeneko gazteek egiten duten ekintzetatik proportzio handiena azaltzen duena ikastea da (%91). Ondoren telebista ikustea izango litzateke altuena (%86), gero

musika entzutea (%78) eta irakurtzea (%63). Ikasleen %66ak astegunetan tabernetatik bueltatxo bat ematen duela dio. Ekintzak egiteko orduan, neska-mutileen arteko ezberdintasuna nabarmena da mutilek telebista gehiago ikusi eta kirol gehiago egiten dutela. Neskek

egiten dituzten ekintzen artean, ordea, musika entzutea, etxeko lanak egitea eta irakurtzea egongo lirake. Badirudi gure bailarako neska-mutilek etxetik kanpo egiten duten denbora, kanpoko neska-mutilekin konparatuz, haundiagoa dela.

Etxera itzultzeko ordutegia jaietan

ETXERA ITZULTZEKO ORDUTEGIA JAIETAN	O.H.O			B.B.B..			U.B.I..
	6. maila	7. maila	8. maila	1	2	3	
12ak BAINO LEHENAGO	%8	%9	%10	---	%1	---	---
12ak- ordu biak BITARTEAN	%41	%49	%40	%17	%5	%1	---
Ordu biak-4rak BITARTEAN	%33	%23	%38	%48	%39	%24	%5
4rak BAINO BERANDUAGO GAU PASA	%11	%13	%9	%33	%52	%74	%93
EZ DAKI EZ DU ERANTZUTEN	%7	%6	%3	%2	%3	%1	%2

Seme-alaba gazteak dituzten familietan, burukomin haundiena sortzen duen gaia gauean etxeratzeko ordutegiarena da. Almenen burutu den ikerketa honetan garbi gelditu da berandu etxeratzearen arazoa ez dela familia batzutan ematen soilik, etxe gehienetan baizik.

Laukiko datuak aztertuz, honako irakurketa hau egin daiteke:

Jaietan O.H.O.ko ikasleen herena, ordu biak-4rak bitartean etxeratzen da. B.B.Beko ikasleetatik

aldiz ia erdia etxeratzen da ordu horretan eta %33a 4rak baino beranduago. Garbi dago adina gorantz doan heinean etxeratzeko ordutegia ere luzatzen dela.

U.B.I.ko ikasleetatik jaietan inor ez da ordu biak baino lehenago etxeratzen. Hauetatik %93a 4rak baino beranduago iristen da.

Taula honetan azaltzen ez badira ere, ikerketa honek eman dituen beste ondorio batzuk honako hauek dira:

- Gaupasa egiten dutenetatik

%94ak edan egiten du.

- Adina haundituz doan heinean inkestatuek beste dibertsio modu batzuk aurkitzen dituzte, esaterako, pub-ak, diskotekak, rock kontzertuak e.a. Era berean, zinemara gutxiago joaten direla eta elkarrean gutxiago partehartzen dutela egiaztatzen da.

- Edariak edatearena eta etxera berandu iristearena ez da bakarrik jaietan ematen den fenomeno, astebukaeretan ere ematen da, baina intentsitate txikiagoan.

Almenen burutu berri den ikerketa honi buruzko informazio gehiago izateko, Maia Etxeberria, Almeneko irakaslearekin izan gara. Maiak inkesta hauen ondorioak zeintzuk izan diren kontatu digu.

Ateratako ondorioarik garrantzitsuenetarikoen artean **hezi-keta prebentibo** baten beharra azpimarratu digu. Beste hitz batzutan esateko, seme-alaba gazteak dituzten gurasoak arazoei aurre egiteko oraindik garaiz daudela. Etxean giro atsegin bat egotea oso beharrezkoa da.

Honez gain, gure seme-alabak zelabaiteko autonomia

batetan hezitu behar direla ere esan digu. *"Seme-alabei hainbat ardatz ez diegu erakutsi, eta hau txiki-txikitatik erakutsi behar da. Gurasook garbi izan behar dugu gure seme-alabei irakatsi behar dieguna zer den"*.

Beste ondorio bat honako hau izan da: Adin bereko seme-alabak dituzten guraso batzuk elkartzea lortu da eta era honetara beraien seme-alabei begira hainbat gauza aztertuko dituzte, esaterako, gauean seme-alabak etxera bueltatzeko ordu egokia zein izan daitekeen, e.a.

"Ikerketa hau burutu ondoren, guraso eta irakasle talde bat

sortu, eta bide batez hemendik urte batzutarako plangintza bat egin nahi da. Beti ere plangintza hori heziketa prebentiboaren ikuspun-tutik begiratuta, horrela arazoa eman baino lehen ekiditu nahian."

Heziketa prebentibo horrekin hasi guran, Almenen hitzaldi bat eman behar da. Hona hemen zehaztapenak:

Gaia: **"BIKOTEAREN BIZITZA GAUR EGUN"**
Hizlaria: **Manuel Iceta**
Egunak: **Otsailak 1 eta 2**
Ordua: **Arratsaldeko 6ak**

FUTBOL EMAITZAK

1º ERREGIONALA

VASCONIA	1	UROLA	1
ARETXABALETA	1	TOURING	0
DANAK	3	BERGARA	0
TOLOSALDEA	3	SORALUZE	2
GURE TXOKOA	1	AMAIKAK BAT	1
TOLOSA	3	ALDE ZAHARRA	2
ANAITASUNA	1	EUSKALDUNA	1
ZUMAIAKO	1	AZKUENE	1
ORIO'KO	1	INTXAURRONDO	0
ILINTXA	5	ALLERRU	0

1º JUBENILA

ARETXABALETA	4	ORIOKO	1
S, HERRERA	0	LIZARDI	1
UROLA	0	ZARAUTZ	0
BERGARA	3	ST. LIZEO	0
SORALUZE	1	MICHELIN	4
ZESTOA	1	HERNANI	8
OIARTZUN	2	ILINTXA	2
DONIBANE	4	M. BIHOTZA	3
ANTONIANO	2	BERUMENDI	2

SASKIBALOI EMAITZAK

JUNIOR GIZONEZKOAK

ETXADI	50	IRAURGI	48
ARRASATE	70	ORDIZIA	63

KADETEA EMAKUMEZKOAK

ENGLISH	49	IRUROK	16
GROS C	57	ALMEN	55
ALDE ZAHARRA	33	ANDRAITZ	31
AMIGOS	43	ITOITZ	38

KADETEA EMAKUMEZKOAK

ETXADI	49	ESKORIATZA	20
ZARAUTZ	31	DON BOSCO	30
ALMEN	32	ARRASATE	40

PELOTA EMAITZAK

OHOREZKO MAILA

IÑAKI KORTA	15	UNAI ERRASTI	18
-------------	----	--------------	----

EROSKI KONSUM

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8

Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g

Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA

BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA

Otalora kalea

Eliza aurrean

Tfnoa: 77 13 57

ITURGINTZA


Tfnoa: 79 07 34 / 79 31 87



AZKENA TABERNA

Solohaundi, 8 % 79 74 57

EGUZZKIGRAF



Aldizkariak
Inpresoak
Bulegoko materialak

Aretxabaletako Industrialdea, F-0-4 ARETXABALETA

Tfnoa: 943- 79 18 44

Faxa: 943- 79 29 41



GARAGE NORTE S.L.

Zerbitzu Ofiziala

Basabe Poligonoa, A-1-3

Tfnoak: 79 62 65 / 79 20 86

ARETXABALETA

Jubenil eta kadeteen ziklo-kros proba



Aspaldiko ohiturari helduz, ziklo-kros lasterketa egin zen Atxabaltan urtarrilaren 15ean. Beraz, jubenil eta kadete mailako ziklo-kros probak ikusteko aukera izan genuen. Probaren itzulia nazioarteko azken karrera burutu zeneko berdina izan zen.

Proban parte hartu zuten atxabaltarren artean aipatzekoa da Mikel Roldan txirrindularia,

jubenil mailan bigarren helmugaratu baitzen.

Irabazleak honako hauek izan ziren:

Kadete mailan:

1- Andoni Aranaga (Estatuko txapelduna)

2- Arkaitz Erraskin

3- Joseba Zubeldia

Jubenil mailan:

1- Oier Egaña

2- Mikel Roldan (Dorleta)


3- Alfonso José Garcia

U.D.A. aurreko postuetan

Lehenengo bueltari amaiera emateko, Preferente mailako futbol taldeak Rotetaren aurka jokatu zuen, banako emaitza lortu zuelarik.

Bigarren bueltari hasiera emateko, Muniberi 2-1 irabazi zion hirugarren postura igoz. Badirudi aurten zerbait egin dezaketela.

JOSE JAVIER BARQUERO, SELEKZIORA



Jose Javier Barquero

Jose Javierrek 15 urte besterik ez dauka, eta dagoeneko hiru urte daramatza futbolean Donostiako Errealean. Momentuz Arrasateko Institutuan ikasten ari da. Aste honetan Madrilera joan da selekzioak deituta. Zorte on!

• Noiz hasi zinen futbolean jolasten?

Lehenengo mailan, hau da 6 urte nituela.

• Zein taldetan ibili zara orain artean?

Kurtzebarrin, UDAn eta azken hiru urteetan Errealean.

• Gazteegia zara futbola hain serio hartzeko?

Nik baietz uste dut. Gurasoek beti esaten didate lehenengo ikasketak direla eta gero futbola eta hori egia da, baina mundu horretan zauden bitartean zaila da aukera. Ikasketak ezin dira alde batera utzi, futboleko gauzak gaizki irtetzen bazaizkizu ezer gabe gelditzen zara.

• Ikasketak burutzeko traba haundiegia da futbola?

Orain arte ondo eraman ditut biak. Ordu bete dut egunean ikasteko eta ordu horretan ikasten ahalgintzen naiz.

• Astean zenbat aldiz entrenatzen duzu?

Astean hiruzpalau aldiz. Taxiz egiten dugu Donostiarako joan etorria.

• Zein izango litzateke zure ametsa?

Bartzelonan jokatzea.

• Zein postutan jokatzeko duzu?

Batez ere ezker aldean.

ARLUTZ

TABERNA

Mitarte, 16 ☎ 79 32 34
ARETXABALETA

MIKELOS

Moda
Guztia Zuretzat

Durana, 8 ☎ 79 10 96
ARETXABALETA



Basabe Poligonoa A-15
☎ 79 34 28
ARETXABALETA


OSKAR GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABALETA

Gaztetxo artistak gure eskoletan



Kurtzebarri Ikastolako 3.mailako haurrek Atxabaltari buruzko *Gida turistiko* bat egin dute. Gida honetan Atxabaltako eraikuntza ezberdinen argazki, marrazki eta datuak daude, esaterako Andra Mari Eleiza, Konbentua, Kanposantua, Otalora Jauregia, Liburutegia, Herriko Plaza, e.a. Gaurkoan, ezkerreko argazkian ageri den bederatzietako **Leire Lozanok** Euskal Txokoari buruz egindako lana daukagu: marrazkia eta idatzia.



“Euskal Txokoa Durana kalean dago. Bere aurretik bidea pasatzen da, eta bere ondoan denda bat dago. Eraikuntza hau XVI. mendean eraiki zen. Udaletxea jarri zuten bertan eta 1989. urtean, Euskal Txokoa bezela inauguratu zen. Kale honetako eraikuntza guztiek tamaina ertaina daukate. Euskal Txokoaren itxura luzezka da. Eraikuntza hau harriz eta egurrez eginda dago. Nahi al duzue beste datu batzuk jakitea, bai? Beno ba, orman armarrria dauka. Ondo begiratzen baduzue, harriek laukiak osatzen dituzte. Atea egurrezkoa da eta kolore marroia du. Lehioak kaxa itxurakoak dira eta balkoia leihoaren erdi erdian dago. Teilatupea egurrez egina du. Bi solairu ditu eta ez du tximiniarik”.

MEMESA S.L.

Santa Kurtz, 25-27
Tfnoa: 77 11 75
ARETXABALETA

PAGALDAI

Opari denda

Durana, 33 ☎ 79 10 14
ARETXABALETA

PORTASOL AROZTEGIA

Basabe Poligonoa, 1
Tfnoa: 79 34 84

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK URKULU, S.A.

Mitarte, 23
Tfnoa: 79 96 66


Jauregi Okindegia

Otalora, 10
Aretxabaleta



TABERNA-BERRI JATETXEA

Durana, 26
Tfnoa: 79 20 67
ARETXABALETA



ARGI-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Axeri, 3 ARRASATE
Tfnoa: 77 11 30



O tempora! O Mores!

Urteko usadioari jarraituz, datorren hilean, Santa Ageda bezperan, goizean goiz, etxalferuak botaz, eta horren ondorioz, atxabaltar gehienak izutuz eta era berean alaituz, Santageda mutilak aspaldiko bideari ekingo diote baserriz-baserri. Ez dakigu krisiak inongo eraginik izango duen txorizo/arraultze batze-lanean.

Santageda mutilen zentzu antropologikoa sulerterreza da: Herriaren aurrean abestu, plazan agertu, eta bertako dantzak, jendearen onespenerako egiten ziren/dira, eta ohiturak hor dirau, gure kontzientziaren zoko ilunenean gordeta dagoen giltzarria interpretatuz. Santageda mutilak, euren jai egunak igaro ondoren, gizarteratze prozesuko beste maila batetara heltzen dira.

Gizarteak, jakina denez, jaurtiko ditu betiko kritikak: "Gero eta gazteagoak dira" "A ze gaizki abesten duten!" "Dantzan ere

ez dute ikasi", etab...; beti, itzuliko ez den iragana berreskuratu nahian edo.

Gauzak aldatu egin direla? Jakina. Galdetu iezaezue, bestela, argazkian agertzen direnei. Seguru asko, Santageda mutil hauek tantaia jaso zutenean, Udaletxeak ez zion baserritarrari mila duro ordaindu tantaiaगतिक.

Zutik, ezkerretik hasita: Patxi Zubizarreta, Matias Oianguren, Paulo Zuazabeitia, Demetrio Iriarte (txistularia), Emilio Gutierrez, Karmelo Igartua, eta Benito Gaztañaga.

Behean, ezkerretik hasita: Sabino Bengoa, Migel San Juan, Rufino Peña, eta Bixente Otxoa.

OTempora! O Mores! (Moruen Denporatan?) Bai zera!

Eskritoreak eta rokerook



J.J. Aretxaga

Gozada bat da Aretxagazetako laguntzaile izatea. Jende pila bat ezaguketan da. Oraingoan ere langile barria ezaguketako aukera izan dut. **Iratxe Bengoa** da gure behargin barria, neska fina. Jende asko agertu zen lanpostura eta azkenean Iratxe aukeratu dute. Ia ondo portetan den nirekin.

Gaur irabazle izen asko daukagu. Loramendik eta Udalak antolatzen duten "Loramendi Literatur Lehiaketa"ko irabazleak erabakita daude. Badakizue herriko ume eta gaztetxoan artean egiten dela ipuin eta poesia lehiaketa hau. 3-4. mailetan hauek dira irabazleak: **Irati Urkia, Estibaliz Romero** eta **Mari Karmen Algeda**. 5-6. mailetan, **Ibon Elordui, Aitor Bolinaga** eta **Kepa Balenziaga**. 7-8 mailetan, **Ainara Bilbao** eta **Xabier Pagoaga**. Martxa honetan eskritore faltarik ez du izango Aretxabaletak.

Beste lehiaketa bat. Aretxabaleta Euskalduntzeko Hitzarmenari '**Berbari**' izena jarrita gero, bere logotipoa egiteko lehiaketa egin zuen Loramendik. Nork irabaziko, eta mutrikuar batek: **Aritz Arrizabalaga** izan da artista.

Rokeroak rifak saltzen. Haundiak ikusteko jaio ginen. **Poli, Pali, Pana, Sasi** eta **Piturdi** ei dira taldeko partaideak. Gaurko gazteek izenak ere aldatu egiten dituzte. P-rekin hasia modan dago gainera. Taldearen izena behintzat orjiinala da, 'Arix'. Biba Rocka.

Areantza auzoko gizonezkoek (gizonek eta gizon ustekoek) afaria egin zuten joan zen zapatuan. Areantza bertakoak eta arrimatutakoak. Itxuria, auzoko emakumeek egiten zuten afaria lehen, baina oraingoan Gizakundek erreakzionatu du eta gizonen afaria antolatuta. Zertzuk egiten diren kontrarioengandik urrin egoteko...

Selekzionatu bat be badaukagu. **Jose Jabier Barquero** atxabaltarra futboleko sub-16ko selekzio estatalerako (oraindik selekzio nazionalik ez daukagu) selekzionatu dute. Futbola frutu barriak emuten dabil gure herrian. Holaxe hasten da, duda barik.

A R E T X A Z O K A

LANAK

- Masailari diplomatuak bere zerbitzuak eskaintzen ditu Lehenengo kontsulta dohainik izango da. Telefonoa: 78 24 35

- 21 urteko neska euskalduna, umeak saintzeko edo zerbitzari bezala lan egiteko prest dago. Tfnoa: 798740

- Mota guztietako lanak ordenagailuz pasatzen dira. Interesatuak telefono honetara deitu: 79 77 59 (Fernando)

ETXEBIZITZA

- Arrasaten neska bat behar da pisua osatzeko. Prezioa: 9.500 pta. Deitu 797077 telefonora (Aintzane)

- Pisu bat salgai dago Bedarreta auzoan. Deitu: 79 80 27

- Bi ikasle pisu txiki bat alokatzeko beharrean aurkitzen dira. Interesatuak 79 91 28 zenbakira deitu (Susana). Astegunetan 8etatik aurrera.

- Erdi jantzitako etxebizitza salgai dago San Migel auzoan. Tfnoa: 79 76 72


SALEROSKETAK

- Garaje bat salgai dago Andra Mari auzoan. Interesatuak deitu 79 68 35 telefonora.

- Eskoriatzan garajeak salgai daude. Tfnoak:
 - 79 16 05
 - 79 43 73
 - 71 47 27
 - 71 41 51
 - 71 47 14

Jose Antonio Zangitu

“Nahiago dut arbitratu futbolean jolastu baino”.



Jose Antonio Zangitu

“Hogeita hamar urte nituela hasi nintzen arbitratzen, eta harez gero oso gogoko dut haurrentzako kirolarekin zerikusia duten ekintza ezberdinak antolatzea.”

- **Zein da arbitratzearen alderdi positibo bat?**
Elkarteari laguntzeaz gain, neska-mutikoei ere mesede bat egiten diezu.
Eta alderdi negatiboa?
Niretzat ordutegia da txarrena, baita jendearen kexak ere. Honetan gurasoak okerragoak dira haurrak baino.
- **Arbitratzen ari zarela, inoiz objeturik bota al dizute?**
Ez sekula, ni ona naiz eta.
- **Neskak ala mutilak arbitratzea nahiago duzu?**
Nahiago dut mutilak arbitratzea, ohituago nago eta.
- **Zerbait gaizki arbitratu duzula konturatzean, zer egiten duzu?**
Neure buruaz haserretzen naiz, baina gero animoak ematen dizkiot neure buruari.
- **Aposturen bategatik moztuko al zenuke bibotea?**
Ezta pentsatu ere. Hogeitaz urte daramatzat berarekin eta ez nuke inolaz ere moztuko.
- **Zeinda ure txikitako biurrikeriarik okerrenetarikoa?**
Sei urte nituenean pinudi bat erre nuen, baina honez gain beste biurrikeria asko izango nituzke kontatzeko.
- **Zer nahiago duzu bazkaltzeko ardoa ala ura?**
Ez bata eta ez bestea, nik garagardoa edaten dut. Ez dut ardorik probatu orain dela 10 bat urte.
- **Zer izan nahi zenuen txikitari?**
Txikitari futbolista izan nahi nuen, munduko futbolista onena.
- **Zein da zure gogoko kirola?**
Kirol guztiak ditut gogoko.



Patxi Alzola
(42 bazk. -zkia.)
dugu aurreko alean saritu suertatu zena. On egin.

ARETXAGAZETako bazkide batek, beste lagun batekin, **Burgales Jatetxean** afaltzeko aukera izango du. Horretarako galdera ondo erantzun beharko duzu eta gainera ARETXAGAZETako bazkide izan.

**JAKI GOXOAK
ETA
GIRO ATSEGINA**

Durana, 12 ARETXABALETA
Tfnoak: 79 20 63 / 79 17 11

BURGALES JATETXEA

Non zegoen kokatuta Burgalesena, 1950. urtea baino lehen?

a. - Mitarte kalean

b. - Durana kalean bertan

d. - Herriko Plazan

✂
Erantzuna:

Izena:
Kalea:
Tfnoa:


BERGARA



Urtarrilak 31

IKASLEEN ESKULANEN ERAKUSKETA
Izaskun Saiz eta Edurne Uribealgoren eskutik. Urtarrilaren 31tik otsailaren 12ra.

ARRASATE



Otsailak 5

KONTZERTUA
Arrasate Musikalek antolatuta "Aulos Ensemble" boskotearen kontzertua izango da **arratsaldeko 7retan**.

OÑATI



Urtarrilak 28

"LASARTEKO ABESBATZA"
Santa Ana Antzokian izango da **gaueko 8retan**.


Otsailak 6

ZINEMA **IPAR HAIZEAREN ITZULERA**

Otsailak 7

HITZALDIA
Gaia: **"Que es el voluntariado"**. Ekintza, Jubilatuen Etxeak antolatu du eta 4etatik 6etara izango da.

ARRASATE



Urtarrilak 27

MASKARADA : "MOSTRUO SAKRATUA"
Amaia Antzokian izango da gaueko 10.30retan.
Sarrera: 700pta./ Gazte txartelaz: 500pta.

GAILURRETAN

Iñurtegi anaiak Pumoriri buruz emango duten emanaldia **arratsaldeko 7retan**. Harkaitz eskaladatik mendi haundi bateko igoaldia izenburupean.

Otsailak 8

MAKALURAKO ESPEDIZIOA
Iñurtegi anaiak zuzenduko duten ekintza. Gaia: **"Lehen zortzimilakoa"**. Arratsaldeko 7retan izango da.

Otsailak 3

PINTURA ERAKUSKETA
Victor Ayalaren margoak aurkeztuko dira Harresii Aretoan (Iturriotz 35). Erakusketa **otsailaren 3tik 19ra** bitartean izango da.

Otsailak 9

K-2ko ESPEDIZIOA
Iñurtegi anaiak "Lehenengo igoera konpletoa Cessen bidetik" deskribatuko dute **arratsaldeko 7retan**.

**ZARAIA
TABERNA**

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIK



**Lurrindegia
Opari-denda**

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

MARI-MERKE

Ihauterietarako
mozorro guztiak

Lezama Merkatal Zentrua
ARETXABALETA

DON VIDEO

**PELIKULARIK
BERRIENAK**

Lezamako Merkatal Zentrua
ARETXABALETA

ARETXABALETA



Urtarrilak 27

“ENPRESAKO ESPERIENTZIAK”

Otalora Jauregian izango da gaiaren aurkezpena.

Otsailak 1 eta 2

HITZALDIA ALMENEN

Gaia: “Bikotearen bizitza gaur egun”

Manuel Izeta izango da hizlaria eta ekintza arratsaldeko 6retan izango da Almeneko Aretxean

Otsailak 3

SAN BLAS EGUNA



Otsailaren 3an erramu eta janariak bedeinkatuko dira San Blas Ermitan

Otsailak 5

MENDI IRTEERA

Murruko Mendi Elkarteak antolatuta irteera: **Aranguren-Arlutz-Leixargarate.**

ALLARTERA IRTEERA

Zaraia Mendi Taldeak antolatutako.

KINTOAK

Arratsaldeko 7retan herriko plazan banakoa eta desafioa dantzatuko dute, kalejira batez amaitzeko.

Otsailak 17

SAGARDOTEGIRA IRTEERA

Berri-zahar taldeak antolatuta, Ataungo “Urbitate” sagardotegira. Izena emateko azken eguna otsailaren 13a izango da Loramendi Kultur Elkartearen.

BEHARREZKO TELEFONOAK



Aretxabaleta



- Udal Bulegoak 79 10 00
- Udaltzaingoa 77 45 67
- Euskaltegia 79 21 68
- Postetxea 79 28 31
- Kultur-Etxea 79 01 05
- Gizarte-Laguntzailea 79 10 00
- Kiroletxea 79 64 61
- Parrokia (Bulegoa) 79 18 42
- Basotxo 77 09 81
- Urats Gain 79 99 11
- Osasun zentroa 79 74 58
- Hezibide Elkarte 79 31 32
- Industrialdea 79 62 80
- Liburutegia 79 10 00
- Taxi Geltokia 79 22 33
- Loramendi K.E. 77 0970
- Murruko M.E. 79 93 74
- Leniz Lanbide Esk. 79 79 00
- Kurtzebarri Eskola 79 00 49
- Pausoka Haur-Esk. 77 03 77
- Santa Rita Ikastetxea 79 17 00
- ALMEN 71 49 64
- Otalora 79 79 99

Udaltzaingoa

- Arrasate 79 14 39
- Bergara 76 14 69
- Eskoriatza 79 03 22
- Oñati 78 04 11

Denetarik

- Eskualde-Ospitala (Arrasate) 79 53 00
- Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
- Ertzaintza (Arrasate) 79 71 99
- Suhiltzaileak (Oñati) 79 28 00
- Renfe (Zumarraga) 72 15 15
- Renfe (Gasteiz) 23 20 30
- Pesa (Arrasate) 79 14 18
- Larrialdia (Arrasate) 79 13 57
- Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzeen Elkarte 79 87 77
- Deba Garaiko Udal Elkarte 79 33 99
- SOS Deiak 088



centro
hogar
MUEBLES

GRUPO



**Amuebladora
Mondragonesa**

Sartzen dena:
zeuk behar dituzun altzariak

ARRASATEKO BARIANTEAN